

Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Aldaketa garaia?

A

tzerritarren eta boto-eskubidearen aldaketa garaia al da? Datozen udal hauteskundeetan lehenengo aldiz Europar Batasuneko (EB) lurraldekoak ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahaliko dute. Hau dela eta, batzuek azpimarratu dute subiranotasun nazionalaren printzipioa zalantzan jartzen dela nolabait; beste batzuek, aldiz, hiritartasun transnazionalari bidea ireki zaiola. Goazen errealitatean atzerritarren boto-eskubidea nola gauzatuko den aztertzeraz.

Lehenik eta behin, esan beharra dago boto-eskubidea soilik udal hauteskudeetarako izango dela. Bigarrenik, boto-eskubidea lortzeko bi ate oso ezberdin daude. Lehenengoa EBko kideena, hauek nahiko dute eskubide hau erabiltzeko borondatea erakusten duen adierazpen formal entregatzea. EBz kanpokoek honako baldintzak bete behar dituzte: aurrekoek entregatu beharreko adierazpen formalaz gain, egoitza baimena edukitzea gutxienez bost urtez eta euren lurraldeak elkarrekotasun-akordioa izatea Espainiarekin, espainiarren euren lurraldean bozkatzeko aukera ere izatea alegia. Hortaz, eta baldintza hauek kontuan harturik lurralde hauetako nazionalitatea dutenek bozkatu ahaliko dute: Bolivia, Txile, Kolonia, Ekuador, Islandia, Norvegia, Zee-



INIGO AZKONA

landa Berria, Paraguai, Peru eta Cabo Verde. Baina denbora luzez daramatenek soilik.

Baldintza hauek guztiek dezente baldintzatzen dute atzerritarren parte-hartze aukera. Horrela, EINEK (INE) eskaintzen dituen datuen arabera, estatu osoko atzerritarren hautesle-errola 465.661 pertsonen osatzen dute, hautesle-errola osoaren %1,3a da, EAEn datu hau are baxuagoa da, %0,7 hain zuzen ere. Ikusteke dago hauetatik zenbat joango diren bozkatzera. Aipatu beharreko beste elementua, bozkatzeko borondatea erakutsi dutenen artean, gehiago nagusi bat EBko nazionalitatea duela da (%88,9 Espainian), eta zehazki, lehenengo EB-12ko nazionalitateak. Halaber, bozkatu behar dutenek turismoari loturiko immigrazioa ordezkatzen dute nagusiki eta ez hainbeste inmigratio ekonomikoari loturikoa.

Laburbilduz: sinbolikoki aldaketak dauden arren, praktikan aldaketa oso txikia da eta momentuz ez gaude subiranotasun nazionala zalantzan jartzeko zorian ezta hiritartasun transnazionala eraikitzeko zorian ere. Atzerritarren boto-eskubidean benetan eragiten duena espainiar nazionalitatea lortzea da. Adibide gisa, 2002-2010 urteetan nazionalizatutakoak 444.184 pertsona izan ziren, ia atzerritarren hautesle-errolako kopuru bera. ■

Sinbolikoki aldaketak dauden arren, praktikan aldaketa oso txikia da eta momentuz ez gaude subiranotasun nazionala zalantzan jartzeko zorian

TXANDAN

Igor Estankona



Joxan Artzeri deitu nion, EIEko *Hegats* aldizkarirako Xabier Leteren gainean idatz zezan zer edo zer, artikulua bat, poema bat.

Idazketa eta orrazte lan astunekin zebilela esan zidan, liburu bateko piezei ordena bilatzen. Iruditu zitzaidan burua garbitzeko bota zidala aitzakia labor bihozbera, laster aitortu baitzidan egitorduan: “Ez naiz oraindik Xabierrekin egon”.

Leteren heriotzak lur jota utzi du Artze, oraindik ez ei daki zelan hurreratu beragana, nondik hasi bila. Lurdesen aurpegi gaztearekin egoten da,

Hitzaurrea

baina Leterekin ez du oraindik hitz egin.

Egia esan, jainkorik ez duten sinestuen mundua halakoxea da. Inor ez da betiko guztiz joaten. Pentsatu nuen kristauen antzera eman ziotela lur Leteri, baina fedegabe mistikoen ikuskera zabalekoa zela: “Belaze goitarretako argitasunean/ berreskura dezagula maitasun lehena/ brisarak gure bekokiak zimurrez garbitzean”.

Errua, oinazea, zoriona, beldurra eta salbazioa bizien ardura absurduak dira. Letek honez gero badaki. Egite onak eta txarrak baino ez daude. Eta lagunaren ahotsa norberaren bila. ■